


Noaia!!



Nekazaritza-etxeak,
uda honetan gainezka



Bukatu da, akabo

Zuen
publizitatea
hemen

☎ 943 360 321
publizitatea@noaua.com



Lehiaketa

XV. mendetik gaur arteko euskal olerkaritzak espresibide ederra aurkitu du Pier Paul Berzaitzen ahotsaren bitartez. "Lili baten kantorea" diskoa argitaratu berri du kantari zuberotarrak.

Bidali e-maila erredakzioa@noaia.com

Postaz Bordaerri 3 Eguzkitzaldea -20170 USURBIL(Gipuzkoa).

Txirrikitutik !!

Saroe jauregiko jabegoa den Udarregi baserria XVII. mende erdialdekoa da. Lau aurrealdeak harri eta mortairu estali gabeaz eginak daude. Lehenengo pisuan eta ganbaran, ekialdeko eta hegoaldeko aurrealde-tan, zurezko egitura erregularra dauka. Beheko pisuan, leiho eta ateburuak harlanduzkoak dira eta barruko egitura guztia berriz, zurezkoa da.

Udarregi baserria herrian ezaguna bada bertan Juan Joxe Iruretagoiena, "Udarregi" bertsolaria, bizi izan zelako da. 1829an jaio zen Aiako Uztaetaburu baserrian. Oso gazte zela familia guztiarekin Udarregi baserrira joan zen bizitzera. Gaur egun bertan ez da Udarregiren familiakorik bizi, geroago Artikulaundira joan baitziren bizitzera.

Udarregiren aita ere, Juan Miguel, bertsolaria izan omen zen. Bitxikeri moduan, hona hemen "Udarregi bertsolaria" liburuan jasotzen den pasartea: *"Gau batez, erretira berandu xamar egin zuan nunbait semeak, eta aitak kargu hartu zion: hau ez da garaia gaztea etxera etortzeko! Aitaren esanak ez al du baliyo? Ta Udarregik: Bai semeak egingo baliyo! Orduan*



Udarregi baserria, 2001, Kalezar

aitak pentsatu omen zuan: Ba! Bertsolari zetorrek! Semeak bertsolari-jatorria zekarkik".

Zalao Arnaiz Ibarguren

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
 Tlf: 943 36 03 21 / elkartea@noaua.com / www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeka, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Zalao Arnaiz, Jakoba Errekondo, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.

Denborapasak: LUMA, O.E.

Bazkidetza: Aitziber Aranberri.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeka, Zalao Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua, Nerea Korta.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORJETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZeko ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

IMANOL AZPIROZEKIN SOLASEAN **5. OR.**

HERRIKO OSTATUAK GAINEZKA **6. OR.**

UEMA FESTA ALEGIAN **8. OR.**

SANTIXABELAK IRUDITAN **9. OR.**

JALETAKO AURREKONTUA **13. OR.**

DENBORAPASAK **14. OR.**

HUIZI-ARRUTI GARAILE **15. OR.**



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
 Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Euskarazko hedabideen adierazpena

Euskarazko hedabideen eta Eusko Jaurlaritzak hauen sustapenerako banatzen dituen diru-laguntzen gainean iritzi asko entzun dira azken asteotan. Hiru punturen gainean egin nahi genuke ekarpena ohar hau sinatzen dugun euskarazko hedabideetako eragileok:

Bost urteko izoztea eta gero, euskarazko prentsarentzako diru partida milioi bat eurotan handitu zezala 2006an eskatu genion Eusko Jaurlaritzari. Deialdian 950.000 euro gehiago jaso dira. Horietatik, ordea, 59.050 euro baino ez dira milioi bateko igoera eskatu zuen prentsa-idatziarentzat.

Azken urteotan Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak hedabideekin diru-laguntzak banatzeko irizpideen gainea hausnarketa egiteko asmoa adierazi izan du behin baino gehiagotan. Urteotan sortu diren eztabaida gehienek zerikusi zuzena dute irizpide horiekin (dela lehentasunak ezartzerakoan, dela aurrekontuak zehazterakoan edo prentsa elebidunarentzako laguntzak proposatzerakoan). Agiri hau sinatzen dugun eragileon iritziz, Administrazioa eta hedabideon artean irizpide horietaz hitz egiten

hasteko momentua da. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari azaldu izan diogu mahai baten inguruan gai hauetaz hitz egiteko gure borondatea eta, Kultura Sailak berak ere azaldu izan du horretarako prestutasuna. Denbora aurrera doa eta ez da hedabide eta Administrazioaren artean hausnarketarik egin; bitarte horretan, irizpide berri batzuk aplikatzen hasiak dira jadanik. Guk hausnarketa horri ekiteko prest gaudela berretsi nahi dugu.

Hedabideetan euskararen presentzia handitzeko eta euskarazkoen kontsumoa areagotzeko euskarazko hedabideek edo elebidunek duten garrantzia eta funtzioaren inguruko eztabaida ere ez da berria. Orain arteko azterketek erakusten digute nagusiki erdara erabiltzen duten hedabideetan euskararen presentzia ez dela igo euskaldunen kopurua handitzen joan den adina. Nagusiki erdara erabiltzen duten hedabideek hainbat saiakera egin dituzte (ohiko orrialdeetan berriak euskaraz idatzi, euskarazko gehigarriak egin,...) baina orain arte ez da garapen nabarmenik egon. Euskarazko hedabideek, ordea, garapen ikusgarria izan dute: duela 30 urte lauzpabost aldizkari izatetik 100

hedabide baino gehiago izatera pasa gara. Eskaintza handiagoa eta anitzagoa da eta, era berean, askoz ere irakurle kopuru handiagoa dute euskarazko hedabideek (informazio orokorrekoek, tokian tokikoek zein espezializatuek). Beraz, euskarazko hedabideak argitaratzen ditugun eragileon aldetik, eta euskarazko eskaintzan oraindik ere zeregin handia dagoela kontuan harturik, lehentasuna euskara hutsezko eskaintza indartu eta zabaltzen jarri beharra dagoela uste dugu.

Sinatzaileak: Aizu!, Jakin, Uztaro, Ipurbeltz, Elhuyar, Nabarra, Berria, Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza, Oarsoaldeko Hitza, Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitza, Irutxuloko Hitza, Urola-Kostako Hitza, Goierriko Hitza, Aikor, Aiurri, Aldaize, Anboto, Artzape, Barren, Begitu, Berton, Danbolin, Drogetenitturi, Eta Kित्तो!, Galtzaundi, Gaztetxulo, Geu, Goienkaria, Guaixe, Hernaniko Kronika, Kalaputxi, Karkara, Maxizatzen, NOAUA! astekaria, Pil-Pilean, Prest, Pulunpe, Txintxarri, Txaparro, Uk, Uztarria, Topagunea Euskara Elkarteen Federazioa.

www.noaua.com

Albisteak edizio jarraituan

Zorion-agurren tarteak

Eztabaida foroak

Agenda

Zerbitzuak

Eguraldia

Aldizkaria, on line

Usurbildarrentzat eginiko webgunea

Imanol Azpiroz, errauste planten aurkako plataformako kidea “Zaborrak gaika biltzea eskatu behar dugu”

Donostiako udalak Landarbasoko kokagunea proposatu zuenetik, errauste planten eztabaida pil-pilean da berriz ere. Imanol Azpiroz Zubietako alkatea, Gipuzkoako errauste planten aurkako plataformako kide ere bada. Imanol Azpirozen ustez, herri denetan zaborra gaika biltzean datza arazo honen konponbidea: “herritarrek dute giltza gai honetan”.

NOAUA! Errauste planta Landarbason eraikitzearen alde azaldu zenean, tentsio une larriak izan ziren Donostiako udalbatza aretoan.

Imanol Azpiroz. Ni beranduago iritsi nintzen. Launaka sartu behar izan genuen, banan bana identifikatuak izan eta gero. Udalbatza plenora iritsi nintzenean, Susana Corcuerak plenoa bertan behera uzteko erabaki hartu zuen. Jendea “errauste plantarik” ez eta horrelakoak oihukatzen hasi zen. Odon Elorza atera zen plenotik lehenbizi; gainontzeko zinegotziak ateratzen hasi zirenean jendea aurrean jarri eta tentsioa handia sortu zen.

N. Irudikatu zena, udalbatzako istiluen “argazkia” hori, ez zen oso itxurosoa izan. Ez dakit horren inguruko hausnarketa egin duzuen.

I. A. Gauza bat bultzatu nahi dute nean, medio guztiak jartzen dituzte. Interesatzen zaienean, ekitaldi denak irekiak izaten dira, inongo arazorik gabe. Nahi ez dutenean, saiatzen dira oztopatzen. Donostiako Miramarren duela bi urte egindako jardunaldietan ez zigutela sartzen utziko esan ziguten. Ez geundela behar bezala akreditatuta. Baina halabeharrez sartu ginen. Diputaziokoek zera esan ziguten, iskanbilarik bazen bertan behera utziko zutela bilkura. Eta ez zen ezer pasa.

Denean, eurek dute indarra. Hala



IMANOL AZPIROZ ZUBIETAKO ALKATEA ETA GIPUZKOAKO ERRAUSTE PLANTEK AURKAKO PLATAFORMAKO KIDEA.

ere, azkenean gauzak tentsionatu egin daitezke. Baina komeni da politikoengana tentsio hori iristea. Herrietan errazagoa da, baina Donostian politikoei presioa zuzenean jasotzea ez da txarra. Neurtu egin behar da baina ez da txarra.

N. Udalbatza plenoan ez zen sorpresarik izan. Landarbaso izan zen hautatutako kokagunea. Ez dakit zein izango den orain zuk ordezkatzeko duzun plataformaren lan-ildoak.

I. A. Nik ez dakit hori aurrera aterako denik. Odon Elorzak gola sartu die gainontzeko alderdiei. Beste alderdien artean iskanbila ekarriko du erabakiak. Hernani, Astigarraga, Oiartzun eta Errenteriako udaletan, orain arte errausteari alde egin dute. Orain etxean jarri dieten garaian, ingurugiro azterketak egitea eskatu dute (Hernaniko udalak hala adierazi zuen lehengo astean). Lehen, beste etxean zen garaian dena balekoa zen. Baina orain gauzak aldatu egin daitez-

ke. Guk lehengoari eutsiko diogu. Errausterik ez dugula behar eta badi-rela hondakinak tratatzeko beste alternatibak. Zubietatik ikusita, errazena litzateke esatea, “Landarbasora eramane dute eta...”

N. Hor konpon.

I. A. Bai, baina badakigu Landarbasotik mugituko balitz nora etorriko litzatekeen. Zehaztu duten kokapen horretan jende multzo ikaragarria bizi da eta hori aprobetxatu egin behar da. Hitzaldiak ematen ari gara Ereñozun, Astigarragan, Hernanin... 200dik gora lagun biltzen dira bilera bakoitzean. Laster hauteskundeak datoz eta jendearen mobilizazioa oso garrantzitsua izango da. Zaborrak gaika biltzea eskatu behar dugu, zati organiko guztia bereziki. Herri guztiei hori exijitu behar diegu eta hori lortzen badugu, irabazita dugu. Jendeak du giltza gai honetan.

Uda honetan, herriko ostatuak gainezka

Uda etorri da jada, eta begibistakoa da eguraldi onarekin batera turismoa nabarmen hazten dela. Nahiz eta Usurbil herri turistikoa ez izan, badaude lo egiteko zenbait leku, eta horietan nabaritzen da kanpokoen etorrera. Barazar, Ibarrola, eta Zabalea nekazaritza-etxeetan eta Zaldua eta Atxega hoteletan gai honi buruz galdetzen aritu gara.

Gurea ez da herri turistiko bat, baina ostatu eskaintza zabala da; kaxkotik aldenduta, Zubietako, Kalezar, Atxegalde eta San Estebanen aurkitzen dira hainbat nekazaritza-etxe eta hotel.

Inoiz baino erreserba gehiago

Zubietako Zaldua hotelean uda honetarako aurreko urteetan baino erreserba gehiago egin dituztela kontatu digute. Maixabel Urdanpilletak esan digu urtariletik lan asko egin dutela eta erreserba asko espero dituztela udarako. Horrez gain, Zubietan bertan, Barazar nekazaritza-etxean izan gara Juan Jose Osambelarekin hizketan. Honek esan digu inoiz baino erreserba gehiago izan dituztela.

Baina beste hainbeste gertatu da herriko beste ostatuetan ere. Adibidez, Bittor Aizpuruak hitz egin digu San Estebango Zabalea nekazaritza-etxeari buruz. Hauek ere sekula baino erreserba gehiago izan dituzte. Uztaila eta abuztuan indartsuen jotzen du turismo uholde honek, eta garai horretarako guztia beteta izaten dutenez, dei asko zentralera bidaltzen dituztela kontatu digu.

Andaluziatik eta Madrildik

Kalezar auzoko Ibarrola nekazaritza-etxean kanpotik beste urtetan baino dei gehiago jaso dituztela esan digu Maite Arandiak. Beti kataluniar asko



KATALUNIAKOAK DIRA OHIKO BEZEROAK. ORAIN, BESTE LURRALDE BATZUETATIK ERE IRISTEN HASI DIRA.

etorri izan direla argitu digu, baina aurreko Andaluzia eta Madrildik ere askok deitu dute. Eta Atxega Jauregia hoteleko Nerea de Lucasek ere berdina esan digu, hemen ibiltzen diren gehienak katalanak direla, alegia. Baina italiarrak ere asko etortzen direla hotela ireki zutenetik. Aurreko, bere ustez, amerikar eta frantses gehiago etorriko dira.

Su etenaren eragina

Beste zerbaitetan ere bat datoz guztiak: ETaren su eten iraunkorrak eragina izan du sektorean. Kanpokoek gutaz duten irudia azaldu digu Ibarrolako Maite Arandiak: "esaten digute orain arte terrorismoagatik ezin zutela etorri, eta orain etortzera ausartzen direla; dena beteta daukagunean. Kanpokoentzat horrela da. Nik esaten diet lehen ere hemen oso ondo egon garena, baina ez dute sinisten".

Beste ostatuetan ere hazkundearren arrazoiak su etena izan daitekeela uste dute. Izan ere, ikusi dugun bezala, Madrildik eta orokorrean Espainia

aldetik jende gehiago etortzen hasi da. Eta kataluniarrengan kontu honek hainbeste eragin ez duela ere ikusi digu, ostatu gehienetan esan baitigute betidanik kataluniar asko izan dituztela.

Lo egiteko tokiak

Karobi

Zubietako nekazaritza-etxea.
943 360 635.

Barazar

Zubietako nekazaritza-etxea.
943 363 358.

Zaldua

Zubietako hotela.
943 366 620.

Ibarrola

Kalezargo nekazaritza-etxea.
943 363 007

Zabalea

San Estebango nekazaritza-etxea.
630 562 588.

Atxega jauregia

Atxegaldeko hotela.
943 371 150.

Alegiako herriarekin 52 dira Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko kideak

Berrogeita hamabi dira dagoeneko UEMAn biltzen diren udalerriak (tartean da Usurbilgoa). Santixabel egunean egin zen formalki Alegiako udala UEMako bazkide. Bide batez, udalerri euskaldunen mankomunitateak urtero egiten duen jaialdi nagusia ospatu zuen bertan.

«Herri ordezkariak garen legez, herriko premia eta beharrei erantzun behar diegu», adierazi zuen UEMako lehendakariak, Miren Urreiztik, Alegiako herritarrei zuzendu zitzaizenean.

Herritarrak izan ziren Alegia UEMako partaide izendatzean protagonista nagusiak. Alegiarrak presente ziren udalbatzan, eta jarraian egindako ekitaldian ere parte hartu zuten.

Ospakizuna aprobetxatuz, UEMaren batzar nagusia egin zen Alegian.

EHEko ordezkaritza ere joan zen Alegiara; baita EAKo Onintza Lasa eta Batasunako Karmele Aierbe eta Joseba Alvarez mahaikidea ere.

Konpromisoak

Hamar dira UEMako dekalogoan jasotzen diren konpromisoak; orain, Alegiako udalak bere egin dituenak baina Usurbilgo udalak aspaldi aintzazkotzat hartu zituenak:

Udal langile eta arduradunekin euskara hutsean aritzea; udal agiriren bat gaztelaniaz egonez gero, ez sinatzea; euskara jasotzen duten zerbitzuak kontratatzea; euskararen betekizunak betetzen dituzten langileak hartzea; gaztelaniazko kontratuak ez sinatzea; diru-laguntzen esleipenetan eta bai-



ALEGIAKO DANTZARIEK ALAITU
ZUTEN UEMA EGUNA.

menak ematerakoan euskararen baldintza jasoa egoteaz arduratzea; Udalean aplikazio informatikoren bat jarritz gero euskarazko erabilpena ziurtatzea; erakunde publikoetatik gaztelania hutseko gutunen bat iritsiz gero bueltan bidaltzea; eta ekitaldi publiko guztietan euskaraz hitz egitea.

Donostia-Hernani eskualdeko LAB sindikatuaren bilkura Sutegin

LAB sindikatuko ordezkariak Sutegin bildu ziren ekainaren 30ean. Donostia-Hernani eskualdeko ordezkariak 2005/2006 ikasturteko balorazioa egin zuten (Usurbil, sindikatuaren organigrama, eskualde horretan kokatzen da).

LABen Nazioarteko Biltzarraren balorazioa egin zuten Sutegin bildutako ordezkari sindikalak. Horretaz gain, hauteskunde sindikalen emaitzak ere aztertu zituzten. Eskualde honetan, LAB sindikatuaren ordezkaritza igo egin da (ELAk jarraitzen du delegatu gehien izaten; atzetik dira LAB eta CCOO, hurrenez hurren).

Afiliazio kopuruak ere gora egin du, Donostia-Hernani eskualdean %6an igo baita LABen afiliazioa.



HAUTESKUNDE SINDIKALETAKO
EMAITZAK ERE AZTERTU ZITUZTEN.

Sutegin egindako bilkura eta gero, presoen aldeko elkarretaratzea egin zuten LABeko ordezkariak.

Olarriondo eta Ugartondoko etxebizitzaren promozioak

Olarriondon eta Ugartondon etxebizitza ugari aurreikusitu ditu udalak. Horieta batzuk babes ofizialekoak izango dira, besteak tasatuak eta izango dira alokairu bidez esleituak diren etxebizitzak ere. Zozketak egin aurretik, udalak eskatzaileen ezaugarriak ezagutu nahi ditu. Horretarako, txartel-orriak banatu ziren duela egun batzuk etxe guztietan. Jasotako informazioa oso baliogarria izango da, datu horien arabera zehaztuko baitira zozketen oinarriak.

Udaletxe atarian jarri duten informazio-gunea uztailaren 15a arte izango da zabalik: asteleheneetik ostiralera, eguerdiko 12:00etatik 18:30era (uztailaren 15a larunbata da eta egun horretan ere bulegoa irekita egongo da). Dena den, interesatuak ez dauka pertsonalki azaldu beharrik. Nahi badu, beste batekin bidali dezake txartel-orria beteta (txartel-orria oraindik jaso ez baduzu, udaletxean duzu eskura).

Xomorrok irabazi du Bertso Paper Lehiaketa

Sagardo Egunaren XXV. urteurrenarekin bat egin du aurtengo Bertso Paper Lehiaketak. Hortik lehiaketarako gaia: "Sagarrondotik dator sagardoa". Sei izan dira aurkeztu diren lanak eta honakoan ere, Xabier Aranburu Muguruza "Xomorro" usurbildarra izan da garaile (egun, preso dago Herrera de la Manchán). "Xomorrok" 200 euro eta oroigarria jaso du. Bigarren Julian Albistur Aranburu erreteriarra izan da; 150 euro eskuratu ditu. Hirugarrena ere Erretereriakoa da, Iñigo Legorburu Arregi, eta 100 euro jaso ditu. Hementxe dituzue Xomorrok idatzitako bertsoak.



JAIETAKO BERTSO SAIDAN EGIN ZEN SARI BANAKETA.

"Sagarrondotik dator sagardoa"

Sagarrondoaren soina
Dotore udaberritu
Adarretan hosto obalak
Lore zuriz erne ditu.
Eguraldia xurgatuz
Koxkorak zaizkio gehitu
Haize, euri eta eguzkiaz
Egiten baitira hornitu
Denboraren poderioz
Adarrak dira uztaitu
Zamaren zamaz sagarrak
Ezin direla kabitut
Helduenak lurreratuz
sagarrondoa erditu
Bekatuaren fruitua
Jan gabe ez gaitezen gelditu.

Sagarrondoen orpoak
daude sagarrez beteta
eta baserritarrek prest
dira egiteko bilketa
egitekoari jarritz
berebiziko arreta
esperientzia lagun
bihurtu zaie olgeta
sagarrek galdu ez dezaten
kalitatea kolpeka
kizkiaz egin diete
ziztada baten fereka
ardura handiz uzteko
zakutan ongi gordeta
sagardoa egiteko
lehengaia dira eta.

Sagar garbi ederrekin
Kirikoketa hasi da
Mazoen golpe lehorrez
Txirtxilaturik neurria.
Gutziz desitxuraturik
Eta galdurik distira
Sofrimenduaren sokak
Jada ezin ditzake libra
Tolare bihozgabeak
Hartua baitu segida
Sagarren bihotz-arimak
Tinko estutuaz di-da
Patsa ondo xehatu arte
Ez du izango gupida
Mama gozoa negarrez
Txorrotean ageri da.

Muñoz txorrotadan
Badoa kupelerantza
Lau-bost hilabeterako
Errespetuz usantza.
Kupelaren besoetan
Etzaio faltako dantza
Soinean izango baitu
Hartziduraren arantza.
Bi irakinaldirekin
Datorkio akabantza
Jada ondo gorpuzturik
Joana zaio balantza
Usain eta zaporeak
Baiezatzaten dute, antza
Sagardo bikain-bikaina
Izango den segurantzaz.

Txotx garaiak dizu arindu
Kupeleko martiritza
Ilunpeko zoritxarra
Bihurtu baitizu ditzax.
Ireki dizutenian
Askatasunaren giltza
Ikustekoa zen zure
Abiadura bortitza
Baso ertzean lehertuz
Ospatzen duzu garaitza
Txinparta darizularik
Kabitut ezinik zabiltza
Bihotzak dantzan jarriaz
Jolas ederrean hitza
Zu gabe ai ze tristea
Litzatekeen bizitza.

Txotx bolada pasa arren
Sortzen darraizu lilura
Usain eta zaporeak
Jo dizutelako muga
Bospasei gradu artean
Ereduaren modura
Botilaratu zaituzte
Eramanez merkatura
Iaz Madrilgo perian
Eduki zenun mentura
Aurten aldiz Katalunian
Sustatuz euskal kultura
Kalitatea jarriaz
Bezerearen eskura
Gure arbasoen sustraiak
Zabal ditzazun mundura.

Sagardo eguna zela
Ezin inolaz ahaztu
Kolare ederrarekin
Botilan zeunden han justu
Kortxoa askatuz gero
Edozertarako prestu
Lotsa gutxikin baitzinen
Baso batean biluztu
Eskuan goxo hartuta
Tragoan zintudan hustu
Hura zen hura zirrara
Gorputz osoan ze gustu
Probatu izan ez bazintut
Ezingo nuen sinistu
Bihotzean baitzenidan
Maitasun argia piztu.

Zurekiko maitasuna
Sutsu dezadan seinala
Izan baita hogeitabost
Urteko ezkontza formala
Zintzoa izan natzaizu
Fidela eta leiala
Noizbait harrapatu arren
Mozkor bihurri petrala
Harro diotsut oraindik
Hauxe gertatzen zaidala
Maitekiro zu basotik
Neurrian edan ahala
Pasioarenugarra
Etortzen zait berehala
Zure ezagutza egin
Nuen unean bezala.


Akabo Santixabelak!

Irudi eder asko bildu ditugu jaietan. Horietako batzuk orrialde hauetan topatuko dituzue. Hauek eta argazki gehiago, www.noaua.com webgunean dituzu ikusgai: Argazkitegian sartu, “Santixabelak 2006” esaldian klik egin eta begibistan izango dituzu.

Zure argazkiak ere gure webgunean ikusi nahi badituzu, gure bulegora ekarri (Bordaberri 3 behea, Eguzkitzaldea) edota e-mailez igorri honako helbidera: erredakzioa@noaua.com. Jada jaso ditugu hainbat irudi baina jaietako albumean zureak falta dira. Zeren zain zaude?



Argazkia: Josu Aranberri





Argazkia: Bidai



Argazkia: Bidai



Argazkia: Usurbilgo Gazte Ekimena





Argazkia: Usurbilgo Gazte Ekimena



Argazkia: Usurbilgo Gazte Ekimena



Puntako herri kirol saioak

Santixabel bezperan harri-jasotzaileek eskaini zuten saioa ikusgarria izan zen. Bero ikaragarria egin zuen baina hala ere lan txukuna osatu zuten denek. Joseba Ostolazarentzat izan zen Gipuzkoako harri-jasotzaileen txapelketa nagusia. Zestoarrak, gainera, lehen aldiz jantzi zuen txapela, 9.287,5 kilo leporatu eta gero (82 jasoaldi). Hurrenez hurren, Irigoien (8.762,5 kg),

Izeta III.a (7.950 kg), Izeta IV.a (7.350 kg) eta Lertxundi (5.550 kg) sailkatu ziren.

Bestalde, Ekaitz Arkoagak irabazi zuen Gipuzkoako lokotx-biltze txapelketa (7.25), eta Unanue-Maruri-Etxeberria hirukoteak Gipuzkoako zaku-eramate lasterketa.

Idi-dema saioan, Telleria nagusitu zen, 41 plaza eta zinta bat osatu eta gero.



LOKOTX BILTZE TXAPELKETAN EKAITZ ARKOAGA (DEBA) IZAN ZEN NAGUSI, IRUDIAN ERDIKOA. BIGARREN POSTUA JON GOIKOETXEAK (GAZTELU) LORTU ZUEN, IRUDIAN EZKERREKOA. HIRUGARREN, SANTI MAIZTEGI (ELGOIBAR).



GIPUZKOAKO ZAKU ERAMATE TXAPELKETAN JOSE RAMON MARURI, AITOR ETXEBERRIA ETA IBON UNANUE MUTRIKUKO HIRUKOTEA NAGUSITU ZEN (HIRUNAKA JOKATU ZEN TXAPELKETA).



HARRI JASOTZE TXAPELKETAN JOSEBA OSTOLAZA IZAN ZEN NAGUSI, GUZTIRA, 9.287 KG ALTXA ETA GERO. BIGARREN HAIMAR IRIGOIEN IZAN ZEN ETA HIRUGARREN JESUS MARI IURETAGOiena IZETA III.



IDI-DEMAN TELLERIA IZAN ZEN NAGUSI, 41 PLAZA ETA ZINTA BAT OSATU ETA GERO. BIGARREN MIRURA BASERRIKOAK IZAN ZIREN, 40 PLAZA ETA 2 METROKO LANA EGIN ONDOREN.

**Bidali jaietan atera dituzun argazki politenak
eta www.noaua.com webgunean zintzilikatuko ditugu**

e-posta: erredakzioa@noaua.com

www.noaua.com usurbildarrentzat eginiko webgunea

Zer diyo !!

Nerea Korta



Iragarpenen gainerik, ekaitzik ez azkenean

Bereziak izan dira jai hauek, ezin uka. Zurrumurruek agindutako ekaitza, guztiok lortutako barea izan da azkenean, eta festa politikak izan dira. Azken finean, jairako garaia zen.

Maskota igotzerakoan egindako antzerki politetik hasita, maskota erretzeko traka suabera arte, inoiz baino ekintza gehiago egon dira Santixabel hauetan. Artzabalgo gune berriak ekarritako polemika eta gero ez da istilurik izan, eta honek jardura guztiez gozatzeko aukera eman du.

Bero itogarriaren gainerik, Artzabalgo gazteen bazkariak arrakasta izan zuen. Herri guztiko sonbrilak bildu behar izan ziren frontoian itzal pixka bat egiteko, eta hala ere ezin zen arnasik hartu. Baina hori bai, urik ez zen falta, eta beroegi zeudenak laster freskatu ziren. Ur-festa bikaina bilakatu zen bazkaria. Eta ezin ahaztu kiroldegi aurreko xenenak, pare bat gaztek beren adorea frogatzeko aukera izan baitzuten bertan, adarkadaren bat edo beste jaso eta gero, noski.

Frontoiko bertso-saioa paregabea

izan zen, beti bezala. Gogoratu beharra dago aurtengo bertso-paper lehiaketa Xomorrok irabazi duela, bere bertsoetan sagardoarenganako duen maitasuna azaleratuz.

Gauetz, herriko talde guztiek emanaldi bikaina eskaini zuten. Baina Epok taldea aipatuko nuke nik, talde honen bigarren kontzertua izanik, bizitza guztia horretan zermatela zirudielako.

Festa biziak izan dira, hara eta hona ibiltzea ahalbidetzen duten horietakoa. Herritarren lanean oinarritu da arrakasta guztia.

Jaietako aurrekontua, 90.000 eurotik gorakoa

Ekainaren 24ko judo saioekin hasi eta azken traka piztu arte izan da zer ikusi eta gozatua aurtengo Santixabeletan. Azken urteetan bezalaxe, egitarau oparoa prestatu du Jai Batzordeak.

Kontzertuak, haur jolasak, danborrada, herri kirolak, antzerkia... Ekitaldi gehienetan jendeak ondo erantzun du. Parte-hartzea handia izan da eta giroa primerakoa.

Urte osoan egindako lanaren emaitza

Horretan zerikusia izan du Jai Batzordeak. Aspaldi hasi baitzen egitaraua prestatzen. Eguraldia ere portatu da, beraz, festak ederrak izan direla esan daiteke.

Dirua ere behar izaten da. Santixabeletako aurrekontua zehatz-mehatz ezin da argitu oraindik, baina udal iturrien arabera, 90.000 euro inguruan ibiliko da. Aldamenen dituzuen datuak, beraz, behin behinekoak dira.

Kultur jarduerak _____ 36.849 e

Pintura lehiaketa, antzerkia, dultzaineroak, rock kontzertua, bertso-saioa, erromeriak, txaranga, erraldoi-buruhandiak, albokariak-zanpantzararak...

Kirol jarduerak _____ 9.967 e

Judo txapelketa, futbol txapelketa, igel jokoa, bolo txapelketa, kiaiak jaitsiera, herri kirolak, pilota partidak...

Haurrentzat jarduerak _____ 8.002,47 e

Puzgarriak, Umeen Eguna, zirko tailerra...

Txoznak _____ 13.750 e

Askatasuna plaza, Artzabal

Ohiko ekitaldiak _____ 20.222 e

Oilasko biltzaileak (gazte zein heldu), lore eta salda, dantzariak, danborrada, adinekoen bazkaria, maskota eta traka...

Bestelakoak _____ 4.890 e

Maskuriak, trofeoak, egitaraua, aseguruak, suziriak, azpiegitura...

GUZTIRA _____ 93.680,47 e

	Maitea	▼		Soldata	▼		Belar piloa	▼		Nazioari dagokiona	▼		Militarren kolore
	Akusa-zioak			Lurraldea			Kulunka-tzen dena			Istu, txistu			
	➤			▼			▼			▼			▼
	* DEITURA	➤											
	Ate, hitz elkarketan												
Errieta eginez	▼	Partituren euskarria	➤ ▼							Iparretarrak	➤		
Programa		* IZENA								Ez du entzuten			
➤		▼							Gain	➤ ▼			
									Trebea, abila				
Metalen erakarlea	➤						Hari, nuen	➤	▼				Akuria
Modua							Gipuzkoa-ko hiria						
➤				Bokala	➤		Dardarak	➤ ▼					▼
				Nire			Oxigenoa						
Emakume izena	➤		▼	Ipar EH-n, orain	➤ ▼					Lutezioa	➤		
Irudi ortodoxo				Komaren erdian						Ez eme			
➤				▼			Behien arbasoa	➤		▼		Iodoa	➤
							Bokala					Röntgen	
Alemania-koa, doixtarra	➤					▼					▼		

Argazkian, Usurbilen jaioetako idazlea.

Soluzioa 17. orrian

ASKO DUGU ESATEKO

NOAUA! astekaria, tren eta autobusen ordutegia, noaua.com, kultur ekitaldien sustapena, euskararen normalizazioa, urteko egutegia, beka deialdiak, NOAUA! Txiki, Fototeka, Plis, Plas, Txalo ta Jolas, "Usurbilgo Baserriak eta Baserritarrak"... Gure bazkideak harro egoteko moduan dira. Baina gehiago eta hobeto lan egin daiteke.

Orain, bazkide egiten bazara, Usurbilgo baserrien liburua jasoko duzu opari gisa.

Bazkide egin zaitez!

Noaua!!

36 euro urte osorako

Izena: _____

1.Abizena: _____

2.Abizena: _____

Helbidea: _____

Herria: _____

Telefonia: _____

E-posta: _____

Kontu Korrontea:

Orrialdea bete eta NOAUA!ra ekarri edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Enrike Huizi eta Asier Arruti txapeldunak

Santixabel egunez giro ezin hobea izan zen herriko pilotalekuan Andatzpe-Peña Pagolak antolatutako XXXIV. Usurbilgo Pilota Txapelketako azken partidetan. Eserlekuak jendez gainezka egon ziren eta herritarrek herriko pilotariak animatzeko aukera izan zuten, 12 finalistetatik 5 usurbildarrak baitziren.

Enrike Huizi eta Asier Arruti dira nagusien mailako txapeldun berriak. Jabi Santxo herritarra eta Gutierrez bergararra 22 eta 13 gainditu zituzten eta beraientzat izan zen sari nagusia. Partida hasieran azken hauek aurreratu ziren markagailuan, baina erdi lanetara iristerako aurretik ziren Enrike eta Asier eta hortik aurrera ez zuten partida bereganatzeko arazorik izan. Maila honetako pilotaririk onenaren saria Asier Arrutirentzat izan zen.

22 urtez azpikoen mailako partidaren ere emaitza bera izan zen. Izan ere, Burlatako Landiribar eta Arraztoak 22 eta 13 irabazi zuten Gasteizko Aspiazu anaiei aurka. Pilotari onenaren saria, berriaz, Landiribari eman zioten.

Beste bi usurbildar ere aurrez aurre izan ziren jubenil mailako finalean eta Imanol Esnaola aginagarrarentzat izan zen txapela Sagaseta andoaindarraren laguntzaz. 22-16 irabazi zuten Ezeiza hernaniararren eta Iker Zinkunegiren aurka.

JOSU ARANBERRI



Usurbil FT-ko nesken taldea jokalaria bila

2005-2006 futbol denboraldia amaitu bada ere Usurbil Futbol Taldeko nesken taldea datorren denboraldiari begira jarria da dagoeneko. 14 urtetik gorako neskak futboleant ibiltzera animatu nahi dituzte eta horretarako deialdi zabala egin dute. Gutxienez 14 urte izatea eta futboleant jokatze gogoia edukitzea da eskatzen duten bakarra. Azken 10 urteetan lehiaketan izan da emakumezkoen talde hau, baina datorren denboraldirako taldea osatzeko arazoak dituzte. Datozen asteetan bilera bat egiteko asmoa dute animatzen direnekin.



Aholkua !!

Garaiz antzeman automobilaren matxurak

Etxeko ibilgailuaren hots eta erreazio arraroei arreta zuzentzeak dirua aurreztu eta denbora irabazteko aukera eman diezaguke. Arazorik antzematen duzunean jo behar hala profesional batengana, zure segurtasuna eta zure ingurukoena auzitan dago eta.

- Ihes-hoditik irteten den kea beltza bada, automobilak behar baino erregai gehiago kontsumitzen du eta, hortaz, kutsadura gehiegi harrotzen du.

- Ke horren kolorea zuri urdindua bada, olio gehiegi irensten duen seinale.

- Enbrageko pedala sakon kalkatu eta martxa bat sartzean hots metalikoa entzu-

ten baduzu, azter ezazu enbragea.

- Azeleragailuko pedala zanpatzen duzunean erreboluzio-kopurua ugaltu bai baina automobilak behar bezalako abiadura hartzen ez badu, enbragea labaindu egiten da edo pedalaren haria hautsia dago.

- Bolantea ohi baino zailtasun handiagoz biratzen baduzu, baliteke aurreko gurpilen behar baino aire-presio txikiagoa edukitzea, gidagailuaren koipeztaketa egokia ez izatea edo ibilgailuak karga handiegia eramatea.

- Egokiro asfaltaturiko zoru gainean bolanteak dardarizo txiki bat agertzen badu, litekeena da aurre gurpiletako bat ongi orekatua ez egotea.



- Pedala kalkatzean gogortasun-aldaketarik antzematen baduzu baliteke hodietan airea egotea; beraz, zirkuitua purgatzeko komeni da.

- Automobilak direkzio lagundua baldin badauka eta txilio antzeko hotsa egiten badu, likidoa falta du.

Eguneko goardiako farmaziak

Uztailak 6, osteguna
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Uztailak 7, ostirala
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Uztailak 8, larunbata
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Uztailak 9, igandea
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Uztailak 10, astelehena
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

Uztailak 11, asteartea
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Uztailak 12, asteazkena
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Uztailak 13, osteguna
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Uztailak 14, ostirala
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Uztailak 15, larunbata
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Uztailak 16, igandea
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Aizpuru Farmazia, Latsunbeberri 11,
Hernani. 943 336 077 (Urte osoan).

2006ko egutegi osoa: www.noaua.com

Zubieta-Donostia TST autobusak

ASTEGUNETAN

Zubieta-Donostia

7:55* / 9:30(T) / 13:15(T) /

14:35*(T) / 19:15(T)

Donostia-Zubieta

(Gipuzkoa plazatik)

7:15* / 9:00 / 12:45(T) /

13:45* / 18:45

LARUNBATETAN

Zubieta-Donostia

8:15(T) / 12:45 /

15:15(T) / 21:35(T)

(Gipuzkoa plazatik)

12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

JAI EGUNETAN

Zubieta-Donostia

11:25(T) / 13:30(T) / 15:30(T) /

21:35 (T)

Donostia-Zubieta

(Gipuzkoa plazatik)

11:00(T) / 13:00(T) / 15:00(T) /

21:00 (T)

* Eskola egunetan.

T Autobus aldaketa beharrezkoa da. 943 361740.

Industri eta iragarki
SERIGRAFIA
TANPOGRAFIA
PSU
943 371 954
UGALDEA POL. 36-2 USURBIL

J.ORBEGOZO
ITURGINTZA • GASA • BEROKUNTZA
BIZKARRA 1, 1.EBK 943372937 • 659602789

ALIPROX
Kale Nagusia 10
☎ 943 361 182
USURBIL

ITURGINTZA
JOSEBA
ARANGUREN
☎ 943 830 072
☎ 659 883 912

milorri
larruak eta ekologia
mantenimendua, diseinua
eta aholkularitza
Bendo bari, 10 - Usurbil
☎ 660 154 114/899 152 282
milorri@usurbil.com

www.noaua.com
USURBILGO ATARIA

Agenda !

Uztailak 12, asteazkena

19:30etik aurrera bertso-afaria Astiazaranen. Txartelak salgai Txirristran eta NOAA!n. Prezioa: 25 euro.

Uztailak 15, larunbata

Etxebizitzetxei buruz udaletxe atarian ipini duten informazio-gunea uztailaren 15a arte izango da zabalik: astelehentik ostiralera, eguerdiko 12:00etatik 18:30era.

Uztailak 25, asteartea

Santio Eguna.

Literaturaren txokoa !



“Lile”ren ipuinak

Sarritan urrundurik sumatzen ditugun bizitza eta artea eskutik helduta doaz Lile honetan. Lagunak, gauak, maitasuna, musika, ardoa, koadroak... Lilura berberak elkartzen ditu denak sailkatu ezinezko ipuin-bilduma honetan. Eta gero badu literaturan lortzea zaila den optimismo eder bat, sortzailearen poz kutsakorra, mundu ikuskera berri eta propioa



aurkitu izanaren baikortasun hori, jolas hutsetik haratago doana. Peru Magdalenaren proiektuak, berriz, Lile dauka izena eta ipuin sorta bat da. Lile ipuin horiei guztiei lotura ematen dien pertsonaia da. Bikote-harremanak, gatazka politikoa, adinduen bakardadea... Beste hainbat gai lantzen ditu Peru Magdalena idazleak narrazio hauetan. Iurretarra da jaiotzez, baina Durangon bizi da. Ingeniaria da lanbidez, baina bertsoetan ibili izan da eta hainbat hedabidetarako lanak egin ditu.

Soluzioa !

	✱	L	✱	S	✱	M	✱	N	✱
	S	A	L	A	K	E	T	A	K
	✱	Z	U	R	U	T	U	Z	A
✱	A	✱	A	T	R	I	L	A	✱
E	G	I	T	A	R	A	U	✱	G
✱	I	M	A	N	A	✱	N	I	O
E	R	A	✱	A	✱	I	K	A	R
✱	A	N	E	✱	O	R	A	I	✱
I	K	O	N	O	✱	U	R	O	✱
✱	A	L	E	M	A	N	I	A	R

Imanol Zurutuza

Uztailaren 12an Andoni Egañarekin bertso-afaria Astiazaranen

Udako Euskal Unibertsitateak eta Usurbilgo Sagardo Egunaren Lagunak taldeak “Sagardoa, txotxetik haratagokoa” ikastaroa antolatu dute elkarlanean. Datorren asteazkenean hasiko da ikastaroa. Beste ekitaldi batzuen artean, bertso-afaria egingo da Astiazaranen.

Andoni Egaña “Hori duk arrazoa” saioa eskainiko du 19:30etik aurrera. Bertso-afaria irekia izango da, beraz, edonork har dezake parte. Hori bai, aldeztu aurretik txartela erosi behar da. 25 eurotan daude salgai txartelak, Txirristran eta NOAA!n (Bordaberri 3 behe, Eguzkitzaldea).

Patri Jatetxea



K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

LATAILLADE ITURGINTZA

GASA BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Aritzitxo 8, behe. ☎ 943 363 348 · 609 888 021

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Olindegia - Gozategia

LABE-GOXO

Zendoia



Kale Nagusia 3b · ☎ 943 37 40 71

txirriStra

KONTSEJU ZAHARRA 13
943 360 400

pintxoak
ogitartekoak
plateak konbinatuak

TABERNA

LATXA
Kutxa denda

Janari prekozinatuak
Kongelatuak
Bertako produktuak

Kale Nagusia 2, Ondul · ☎ 943 366 301 803

ETXEBIZITZA

- Usurbilen logela bat alokatzen da 200 euro, guztia barne. 679185102 (Iñaxio).
- Usurbilgo bikote gazte batek pisua alokatu nahiko luke Usurbilen. 679 185 102.
- Usurbilen pisua bat alokairuan hartuko nuke. Tf: 630 032 779.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Tata todoterreno bat saltzen dugu. 34.000 km, ondo zaindua eta aire egokituarekin. Prezioa: 7.000 euro. Negoziagarria. 676 636 038.
- 49 zm-tako Honada moto bat daukat salgai. Kondizio onetan eta modu onean. Interesatuak deitu 943364554 telefonora.
- Lokal bat daukagu alokairuan 70m2koa. Interesatuak deitu 943 372 034.
- Aparkalekuak salgai Bizkarra 1-8 etxe taldean, Kale Nagusia 3. 607 905 859 (Imanol).
- Honda Dominator 650 cc motorra egoera oso onean. 667 172 010 (Jon).

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Udan umeak zaintzeko prest nago. Telefonoa: 687 651 605.
- 17 urteko mutil bat naiz eta ekainetik iraile-ra bitartean Usurbil eta inguruetan gustora lan egingo nuke. Eskaintzen bat baduzu deitu 650491552 telefono zenbakira.
- LH eta DBHko klaseak ematen ditut euskaraz zein erdaraz. Majisteritza ikasia eta esperientziaduna klase partikularrak ematen. 635209193.
- Bi neska lizentziatu eta esperientziadunak LH eta DBHko haur eta gazteei klase partikularrak ematen ditugu euskaraz zein gaztele-raz. Interesatuak: 653711574.
- Emakume bat eskeintzen da etxeko-lanak egiteko, pertsona helduak zaintzeko edota antzeko lanetarako. 620 646 769.
- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lane- tan. 690 784 113.
- Oporretako, ospakizunetako, edozein mota- tako bideoak montatzen dituen profesio-

nala eskaintzen da. Telefono zenbakiak: 943555835/ 617242660.

Lan-eskaintzak

- Irailetik aurrera pertsona bat behar dugu Zubietan haur bat zaindu eta goizez etxeko lanak egiteko. 943 36 71 29 / 660 779 160.
- Etxeko lanak goizez egiteko pertsona heldu bat behar dugu, esperientziaduna eta euskal- duna. 607233255.
- Oporraldian ordezkapen lanak egiteko neska bat behar dugu Laukote okindegian. Esperientzia izatea baloratuko da. Interesatuak deitu 943360980 telefonora.
- Arratsaldean etxeko lanak egiteko emakume baten bila gabilta 645403905.
- Zarautzko malekoian udan lan egiteko zerbi- tzariak behar dira. 661972670.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Larunbatean Puntapax 22-24 artean dortoka bat agertu zen. Udaltzaingoa jaso eta ani- malien babeslekura eramane du.
- Terrenoa landatzeko erosi nahi dut, edifika- tzeko ez. Tf: 943 36 11 09.
- Kotxe bat salgai, Opel Frontera. SS-AP, 3.000 euro. ITV eta bineta ordainduta. Telefonoa: 656 712 340 (Luis).
- Antxumeak eta ibiltzeko zaldi bat saltzen ditut. Interesatuak deitu: 657633461.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukutzen dira, baita ezkontza, opor edota beste edo- zein ospakizunetako bideoak editatu ere. E-maila: profesionala, modu onean. 617242660 / apore@euskalnet.net
- Telebista aldatzekotan bazara eta zer egin ez badakizu etxean daukazunarekin, gustora hartuko genuke. Deitu 943360321 telefo- nora eta geroni pasako ginatete jasotzera.
- Gazteentzat lokal bat alokairuan hartuko genuke. 667 694 049.
- Fatxada margotzeko pintura naranja salgai daukat, kalitate onekoa, prezio onean. 635 209 235.
- Bustner Fun modeloko 5 pertsonentzako karabana salgai. Tf. 629 680 214.
- Umea eramateko mendiko motxila bat ero- siko nuke. Tf. 605 72 48 24

Txerrimunik ordainetan !

Zorionak Mikel! 9 urte egingo dituzu uztailaren 5an. Muxu handi bat eta besarkada bero bat aita, ama, anaia eta amonen partez. Ondo pasa eta horrela segi!



OHARRA: Uztailaren 3an Usurbilgo Bake Epaitegia itxita egon zen. Datorren asteko "Jaiotzak eta herio- tzak" atalean bilduko ditugu aste honetan jaso ezin izan ditugun datuak.

Oharrak, Txerrimunik ordainetan doaneko atalak dira

Datorren alea: uztailak 14.

Zorion-agurrak uztailaren 10a baino lehen ekarri edo bidali.

erredakzioa@noaua.com

NOAUA! Kultur Elkarte
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea
20170 Usurbil

Telefono interesgarriak !

• Udala.....	943 37 19 51
• Udaltzaingoa.....	943 36 11 12
• Obrak eta Zerbitzuak	943 37 01 48
• Eusko Tren.....	943 47 09 76
• Anbulategia.....	943 36 20 13
• Udarregi Ikastola.....	943 36 12 16
• Udarregi (Agerialde).....	943 36 38 95
• Haur Eskola (Kalezar).....	943 37 40 61
• Oiardo kiroledegia.....	943 37 24 98
• Zumarte	943 37 15 94
• Ertumeta euskaltegia	943 37 20 01
• Taxi geltokia.....	943 36 21 78
• D.Y.A.	943 46 46 22
• Gure Pakea.....	943 37 32 28
• Gure Elkarte.....	943 37 17 51
• Arrate Egoitza.....	943 36 63 40
• Bake epaitegia.....	943 37 23 36
• Oa farmazia.....	943 37 60 76
• Iturralde farmazia.....	943 36 33 95
• Zubietako Batzarra.....	943 37 20 77
• Argindarra (Iberduero).....	943 47 09 76
• NOAUA! aldizkaria.....	943 36 03 21
• Ertzantza.....	112
• Suhlitzailak.....	112
• Larrialdiak.....	112
• Anbulantziak.....	112

MIKEL IZAGIRRE
ELEKTRIZITATEA

943 365 095
609 068 111

GOIZ ARGI ETXEA 37 KALEZAR


teilatuak eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE

Obaba kalea 29 • ASTEASU

943 69 68 52 • 620 800 186

ERRAZKIN
IGELTSERITZA
OROKORRA

kale Nagusia, 1
Tel./Faxo: 943 365 125
Móbil: 629 420 563 - 649 435 470



Usurbil aztergai

NOAUA! Beka Deialdia 2006

NOAUA! Kultur Elkarteak elkarteak@noaua.com 943 360 321

NOAUA! Kultur Elkarteak
2.000 euro bildu ditu
Usurbilgo herriari
buruzko
ikerlan-proiektuak
burutzen laguntzeko.
Historia, soziologia,
biologia, kultura...
Burutu nahi den ikerlana
edozein alorretakoa
izan daiteke. Baina, beti
ere, Usurbilgo herriari
buruzkoa.

Eskaerak jasotzeko
epa 2006ko irailaren
15ean itxiko da,
eguerdiko 12:00etan.

Beka deialdiaren
oinarriak NOAUA! Kultur
Elkartearen egoitzan
(Bordaberri 3
Eguzkitzaldea 20.170
Usurbil Gipuzkoa)
eta www.noaua.com
webgunean.

Edertu zaitez!



- ✓ Depilazioa ✓ Manikura
- ✓ Aurpegiko tratamendua
- ✓ Pedikura ✓ Solariuma ✓ Makilatu

Nagusi 51 • Lasarte-Oria 943 370 549



Depilazioa
Makilajea
Manikura

Zubiaurrenea 4, USURBIL • ☎ 943 361 951

Elexpe
ileapaindegia

Betileen tintaketa
eta permanentea

Estetika • Tatuariak

Zutikako eta Elzandako
Solariuma

Muna-Lurra 2. ☎ 943 370 462

INTZA

ileapaindegia

ILE TRATAMENDUAK

✓ **Depilazioa**
Zutikako tratamendua

✓ **Zerbitzuak**
Zutikako tratamendua

Eskaintza bereziak!
Solarium-eko bonuetan

K7 Nagusia 8 ☎ 943 363 641

Eskaintza
Solariuma
35€

Loli Lizarralde
ileapaindegia

Estetika Zentroa
Merche Gurea eta ezkerdik.

Zelularra: 98 877413331

TXARO

- × Ile ziriketa
- × Ilu apurketa
- × Zutikako
solariuma



Ezabastera 8 - 943 371 886